



Txalapartaren doinua, gutxitan bezain ona izan zen. Honetan denak bat zeuden.

EUSKAL KULTURA BARCELONAN

Duela hilabete bat Valencian (Diada del Pays Valencià egunean) kiko Pi de la Serrak eman zidan ekintza honen berri; BARCELONAN euskal aste kultural bat antolatu behar omen zuten, euskal soziedade gastronomiko baten irikitzea zela bide.

Programa gaingiroki ezagutu nuenean —euskal sukaldari berriak, zinea, pintura, poetak, kantariak, mimoa, hitzaldiak, liburu eta diska azoka e.a.— halako gogo berezi bat sortu zitzaidan harantz joateko; hemen ekintza hori koordinatzen zutenekin mintzatuta gero eta programa zehatzki ezagutu ondoren, joateko egunak aukeratu, zehaztu eta joan ginen.



Mikel Laboaren emankizuna oso txalotua izan zen.

zera esan beharra dago: ez zen bere osotasunean eman, aparato elektronikoko baten faltan aurkitu baitzen emailea; hemen ere ikus dezakegu garbi organizazio eza, zeren aparato horren atzetik Barcelonan zehar hemengo bat ibili baitzen antolatzailek ez zegoelako eta normala den bezala aparatorik gabe geratu zen Joxanton eta hor konpon.

Kantaldian ere, antolatzaileen aldetik oso jende gutxi egon zen lana egiteko. Bestalde, publizitatea ez da egin, ez dugu kartel bat ikusi kaleetan zehar eta bertako egunkariak ez dute publikatu gauza handirik. Katalanak honantz ekarri ditugularik, hori baino tratu egokiagoa eman izan diegu, azkenik agindutako diruak ez omen dituzte ikusi eta maila honetan ere zero bat antolatzailei.

Ttuntturroak Ranblasetan

Larunbat arratsaldean Ranblas delako kaletik ibili ziren Ttuntturroak, bertan ziren guztion harriduraz; Huac ere izan zituzten istilurak. Aiuntamentu eta Gobernu Zibilaren baimenaren zain egon baitziren Ranblasetatik buelta egiteko; dena dela, emozioz beterik ikusi genituen eta bat baino gehiago "ikuituta" geratu zen.

Kantaldiari hasiera, Arze Anaiak eman zieten. Txalapartaz ttuntturroen bukaerarekin gurutzatzen zelararik, kantaldia oso ona izan zen, ondoko komentarioak irakurri besterik ez.

• OVIDI MOTLLOR: "Increible, realmente increíble. Es muy interesante lo que está haciendo ya que ofrece posibilidades múltiples de interpretación". Laboari emandako saioari buruz ari zaigu Ovidi.

• RAIMON: "Muy bien todos; la primera parte ha resultado de una gran calidad musical y la segunda... que quieres que te diga... Laboa...".

• PALMES: (Txikiren abokatua): "La primera parte muy profunda, muy trabajada, al escuchar la música da la impresión de que cantan a alguien que vive recibiendo martillazos: Pum...pum...pumm continuos martillazos...uniformes... me han impresionado la txalaparta".

• AMEZTOY (Etxeko pintorea): "La txalaparta...no sé, le han sacado un sonido que era nuevo para mí a pesar de haber escuchado muchas veces anteriormente".

Kantaldi ona bai, baina

Bai, kantaldia oso ona zen. Lehenengo partean Arze anaiak txalapartarekin hasi eta Antton eta Xabier lotu zitzaizkigun lanean; "AZKEN OYUA" Lauaxetaren olerkia Valverdek kantatu zuen pianoz lagundurik eta Xabierren kitarraz osaturik. "CANÇO A CATALUNYA" Xabierrek kantatu zuen Anttonen laguntzaz. Xalbadorri eginko kanta, "HAIZEA DATOR IPARRALDETIK", "GAUAREN ORDEZKO EG UNA", "HERRI ZAHAR HONTAN" Valverdek eta Xabier behar bada zenbait zatitan sobera arduraturik. Trikitilariek alaitu zuten pausa garaia eta txalapartaz berriz ere eman zitzaion hasiera bigarren partean. Laboak emandako saioari.

"ZAI BAZAUDE" Jose Mari Zabalak kitarra elektrikaz SKE-TXA, GERNIKA, HEGOAK EBAKI

BANIZKION (jendeari amore emanetz) eta ORREAGA (berria, Gernika, Lekeitio etabarren tankerakoa) izan ziren gogoratzen ditudenez kantatutako kantak. Lasai eta zentratuturik ikusi genuen Mikel; jendea, behar bada, hemen baino errespeto handiagoz jarraitu zuen Laboaren emankizuna eta esan beharra dago, oso txalotua izan zela saioa.

Ez, ez gaude hain atzeratuak (batzuek dioten edo nahiko luketen bezala) musika eta olerki mailan. Orain arte begi negarrez harituak gara katalandarren produzioa ikusirik eta hemengoarekin konparaturik; oraingo honetan lan serioaren berri eman da Barceloitan, bestalde diskarik ez omen da saltzen Euskal Herri-tik kanpo eta ez da batera harrizkoa kontutan hartzen badugu Barcelonan eta kantaldia ematen zen aretoan bi mahai bazirela euskal liburu